Ordena juridiko bakoitzean dagoen egoera aztertzearen helburua da azken hiru urteetan izan duten *lan-karga zedarritzea*, eta, horrela, modu fidagarrian bereiztea egiturazko defizita duten eremuak, defizit hori planta judizialaren gehikuntzarekin bakarrik zuzendu ahal zaizkienak. Ikuspegi horretatik, puntu neutro judizialean deskargatutako estatistikak dira funtsezko informazio-tresna. Azterketa hori egin ondoren, planta handitzeko premiei eman behar zaie lehentasuna; izan ere, azken

urteetako esperientziari erreparatuta, plaza sortu berriak ez dira iritsiko egungo egiturazko premiak asetzera. Azken urteotako jarduera-ildoari jarraituz, Justizia Auzitegi Nagusiaren Osoko Bilkurari dagokio dauden egiturazko beharrak aztertzea eta horien artean lehentasunak zehaztea, unitate judizial berriak sortzea proposatzeko orduan.

Informazio hori bera oinarri hartuta, plantaren handitzearen ondorioz bete ezin diren egiturazko beharrian judizialen azterketa eta mugaketa, lehen aipatutako arrazoiak direla medio, lurralde-atxikipeneko epaileen, destinoaren zain dauden epaileen, Justizia Auzitegi Nagusiari atxikitako epaileen edo laguntza-neurrien atxikipenetik igarotzen diren jarduera-ildoen barruan sartu behar dira. Indarrean dagoen araudiaren arabera, laguntza-neurriak direnean, erabakia lehendakaritzari dagokio, Gobernu Salari kontuak emanda (lurralde-atxikipeneko eta destinoaren zain dauden epaileak, BJLOren 347. bis artikulua eta Karrera Judizialeko Erregelamendua) edo Gobernu Salari (BJLOren 355. artikulua, Justizia Auzitegi Nagusiari atxikitako epaile edo magistratuei dagokienez, eta BJLOren 216 bis artikulua eta Karrera Judizialeko Erregelamendua, babes-neurriei dagokienez).

Laguntza-neurrien kasuan, gaur egun egiten den bezala, jarduera-protokoloaren protokolizazioak eskema honi erantzun diezaioke:

LAGUNTZA-NEURRIAREN ESKAERA



Osagarri gisa, hutsik dauden postuak eta titularren absentziak betetzeko, baldin eta karrerako epaileek bete ezin badituzte, ordezeko epaileei eta ordezeko magistratuei deitzeko ezarritako irizpideei eutsiko zaie, Gobernu Salak hartutako erabakietan zehaztutakoaren arabera. Puntu honetan, funtsezkoa da dekanotzen eta gobernu-idazkaritzaren arteko lankidetzaren hobetzea, une bakoitzean jurisdikzioa egikaritzeko prest dauden ordezeko


epaileen eta ordezeko magistratuen zerrenda eguneratua izateko, deialdia justifikatzen duen egoera gertatzen den unean. Puntu honetan, hiru jarduera-ildok egin behar dute bat eraginkortasunik handiena izateko: Gobernu Idazkaritzak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari komunikatzea bateraezintasuna dutenen kargu uztea (BJLOren 390.2 artikulua) eta uko egin dutenena (BJLOren 201.5 b) artikulua); dekanotzek berehala ematea deialdiak justifikatu zituzten egoeren amaieraren berri, eta gobernu-idazkaritzak azken alderdi hori egiaztatzea.

Esparru horretan, funtsezkoa da, halaber, dekanotzen, Justizia Auzitegi Nagusiko Lehendakartzaren eta Gobernu Salaren arteko komunikazio egokia, barruti judizial bakoitzeko epaitegi eta auzitegien kudeaketari dagozkion gobernu-arazoei aurre egiteko. Ildo horretan, Gobernu Salak beharrezkotzat jotzen dituen beste ekimen batzuez gain, Lehendakartzak Euskal Autonomia Erkidegoko barruti judizialek bisitatu egiten jarraituko du. Maiatzetik uztailera bitartean Durango, Gernika-Lumo, Getxo, Balmaseda eta Barakaldoko barruti judizialak bisitatu ditu, Gobernu Salari horien berri emanda. Barruti judizial hauek bisitatzeko asmoa dago: Amurrio, Azpeitia eta Eibar (2021eko azaroa), Bergara (2021eko abendua), Irun eta Tolosa (2022ko urtarrila), Gasteiz (2022ko otsaila), Donostia (2022ko martxoa) eta Bilbo (2022ko apirila eta maiatza).

2.- JUSTIZIA TEKNOLOGIKOKI AURRERATUA

Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuen arteko lankidetzak-hitzarmena sinatzea, lehenengoak bigarrenari Advantius justiziaren kudeaketa-sistemaren erabilera lagatzeko (bertan sartzen dira Advantius prozesu-kudeatzailea, Asigna doako laguntza juridikoaren sistemaren aplikazioa eta profesionalen eta herritarren ataria), espediente judizial elektronikoa behin betiko ezartzeko prozesuaren lehen fasea da, eta 2023rako aurreikusi da aldi baterako helburua. Kudeaketa elektronikoko sistema hori beste autonomia-erkidego batzuetan finkatuta dago (Nafarroan, Kantabrian eta Aragoi), eta CTAJk homologatu zuen 2019an, epaileek eta magistratuek nahitaez erabiltzeko, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren azaroaren 22ko 1/2018 Jarraibidean jasotako baldintzetan. Horregatik, elebitasun ofizialera egokitzeaz gain, ahalegin bateratua egin behar da berehalako balio erantsia emateko – hargatik eragotzi gabe etorkizuneko aplikazioak –, bulego judizialaren antolaketa-egiturara egokitzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoko organo judizialen berariazko beharrei dagokienez. Esparru horretan kokatzen da Gobernu Salaren eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren elkarlana. Hau da proposamena: Justizia Auzitegi Nagusiko Lehendakaritzaren goi-zuzendaritzapean, Justizia digitalizatzeko mahaikideak lantaldeen arduradunak izatea, eta talde horietan jurisdikzio-ordenak (zibila, merkataritzakoa, penala, soziala eta

administrazioarekiko auzietakoa) eta instantzia guztiak (epaitegiak eta auzitegiak) integratzea. Lantaldeetan egiten diren proposamenak Gobernu Salako Osoko Bilkuran aurkeztuko dira digitalizazio-mahaikidetzaren bidez, eztabaidatu eta onar daitezten.



Esan bezala, Advantius sistema ezartzeko bi urte beharko dira, gutxi gorabehera. Aldi horretan, espazio iragankor bat kudeatu behar da, eta bertan *Justizia-bat*, *Justizia Ikusi bi* eta *Justizia Sip* sistemaren alderdi zehatzak lehenetsi behar dira, justizia-sistemaren kalitatea hobetu ahal izateko. Erakundearteko Batzordearen azken bileran, 2021eko uztailaren 14an, honako hau adostu zen: bideokonferentzia-sistema hobetzea, telelana-sisteman sinadura digitala txertatzea eta behin betiko

konponbidea ematea baimenen erregimenaren diseinu informatikoak planteatzen dituen zailtasunei, jurisdikzio-organismoek ebazpenak hartu behar dituzten kasuetan prozeduretara sartzeari dagokionez. Ildo horretatik, Gobernu Salaren Osoko Bilkurak, aurtengo irailaren 24an egindako bilkuran, Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritzak bideograbazioak testu bihurtzeko egindako proiektu pilotua onartu zuen, aurtengo urria eta Abendua bitartean ezartzeko. Helburua da tresna espezifiko bat sartzea JustiziaBat-en (2022ko martxoan) eta Avantius-en (2023ko ekainean), ikustaldien, agerraldien eta jarduketa judizialen grabazioan jasotako ahotsa automatikoki testu bihurtzeko, bai eta tresna arin bat ere, grabazioaren une zehatzetan testu-bilaketak egin ahal izateko, epaiak eta ebazpen judizialak errazago egite aldera.



3.- JUSTIZIA, DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO IRISGARRIA

Justizia-sistemarako sarbidea lehentasunezko puntua da gure konstituzio-ereduan. Izan ere, botere publikoak behartzen ditu beharrezko diren baldintzak sortzera bai pertsonen bai haiek osatzen dituzten taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen, haien osotasuna eragozten edo zailtzen duten oztopoak kenduta (EKren 9.2 artikulua). Esparru horretan kokatzen da Justizia desgaitasuna duten pertsonentzako ere irisgarria izatea. Desgaitasun-ordezkaritzak eskatuta, proposamena da aipatutako ordezkariarekin koordinatuta lan egitea hiru jarduera-ardatzetan:

- **Antolamendu judizialeko kideei prestakuntza ematea**, desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko Legean jasotako xedapenak behar bezala aplikatzeko, bai eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen tratamendurako ere, zibilaz bestelako ordena juridikoetan (ekainaren 2ko 8/2021 Legearen bigarren xedapen gehigarria). Helburu hori lortzeko, lan koordinatua egin behar da Prestakuntzako Mahaikidetzaren eta Desgaitasuneko Ordezkaritzaren artean.
- 8/2021 Legearen bosgarren xedapen iragankorra aplikatzearen eragina **aztertzea desgaitasunaren arloan eskumena duten ordena zibileko epaitegien ebazmenari dagokionez** (epaitegi espezializatuak dira Bilbon eta Donostian, eta, gainerako barruti judizialean, epaitegi mistoetan edo lehen auzialdikoetan txertatuta daude). Izan ere, lege horrek hura indarrean jarri aurretik hartutako neurri judizialak urtebeteko epean egokitu beharra aurreikusten du, alderdiak edo Ministerio Fiskalak hala eskatzen badu, eta hiru urteko epean, ofizioz. 2021eko uztailaren 23ko Osoko Bilkuran azaldu zen bezala, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia azterlan bat egiten ari da aipatutako organo judizialen egungo lan-kargari buruz, bai eta txosten bat ere, legez agindutako berrikuspena egiteak ekarriko duen karga gehigarriari buruz. Horren ondoren, jarduera-programa espezifiko bat egingo da, eta bertan, Gobernu Sala gisa, eta Desgaitasuneko Ordezkaritzarekin koordinatuta, arau-aurreikuspenak hobeto betetzea ahalbidetuko duten proposamenak aurkezteko ahalegina egin beharko da.
- Dibertsitate funtzionalaren arloan eskumena duten **epaitegi eta auzitegiaren lan egiten duten pertsonak sentsibilizatzea**, desgaitasuna duten pertsonen eta sektore horretan lan egiten duten teknikariek eskaintako tailer espezifiko bidez. Gorabide Fundazioak horretarako propio diseinatutako programa espezifiko bat dago, funtzio horretan erabil daitekeena, helburua irisgarritasun pertsonala hobetzea baita. 2 eta 6 ordu bitarteko saioak ditu.
- **Eraikin judizialak seinaleztatzea**. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen eta laguntza ematen dieten teknikariek osatutako taldeek eraikin judizialen egoera diagnostikatzea, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren laguntzarekin.

- **Bilboko Justizia Jauregian obra espezifikokoak egitea.** Bata, Albia Lorategiko eraikineko zazpigarren solairuko argi-patiorako sarbidea, liburutegiaren ondoan. Bestea, Albia Lorategiko Justizia Jauregiaren sarreran, sarrera nagusitik.



4.- JUSTIZIA, GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMAK BABESTEKOA

Justizia-sistemaren zeregin nagusia pertsonen eskubide eta interes legitimoak babestea da (EKren 24.1 artikulua). Maila horretan kokatzen da genero-indarkeriaren biktimak zaintzea. Asmoa da jarraipena ematea hautatutako gai batzuetan hasitako jarduera-ildoei, abiapuntutzat hartuta biktimen ustez sistema judizialak ase behar dituen beharrezaneiei buruz egindako azterlan enpirikoak. Zehatzago esanda:

- **Eskubideei eta prozesu-ibilbideari buruzko informazio-gidak Bizkaiko eta Arabako lurralde historikoetara zabaltzea,** aipatutako dokumentuek lortu nahi diren helburuak bete ahal izan ditzaten Autonomia Erkidego osoan.
- **Genero-indarkeriaren biktimei lagun egiteko politika dinamizatzea** prozeduran zehar, Zurekin programa finkatuz eta programa hori udaletako eta foru-aldundietako gizarte-zerbitzuetan dauden lagun egiteko programekin uztartuz, ahal dela.
- **Birbiktimizazio-arriskuaren koordinazio- eta kudeaketa-protokoloa,** Segurtasun Sailak egina, organo judizialen beharrek lotzea, biktimen babes-aginduak ebazterakoan.
- **Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiarako instalazioak arian-arian egokitzeko laguntza ematen jarraitzea,** kontuan hartuta Biktimaren Estatutuaren exigentziak eta genero-indarkeriaren biktimen osoko babesaren gainera legedi berezia. Egokitzapen hori Gasteizen, Donostian, Durangon, Gernikan, Irunen eta Tolosan eginda, aurtun amaitu behar dira Amurrión, Balmasedan, Barakaldon, Getxon, Bergaran eta Eibarren abian jarritako aldaketak, eta, ondoren, 2021a amaitu, Bilbon.



5.- JUSTIZIA, ERRESTAURAZIOA ETA BITARTEKARITZA BARNE HARTUTA

Gobernu Salak apustu garbia egin izan du, eta egiten ari da, aurkakotasunean oinarritutako justizia-ereduen osagarrien alde. Eredu horiek aukera emango dute babes juridikoaren eskaeren oinarrian dauden gatazkak konpontzeko, tartean dauden pertsonen entzute eta arreta beharretatik abiatuta. Gai honetan, bidezko da:


- [Ebaluazioa egitea 2020an onartutako justizia errestitutiboaren protokoloaren aplikazioari.](#) Justizia Errestitutiboaren Zerbitzuaren memorian jasotako 2020ko datuek hiru ondorio erakusten dituzte zigor-arloan: i) bitartekaritza da, oraindik ere, justizia errestitutiboko teknika ia eskusiboa (% 99,4), eta oso

gutxi erabiltzen dira hitzaldiak (% 0,40) eta zirkuluak (% 0,20); ii) deribazioa instrukzio-fasera (% 79,37) eta epaitze-fasera (% 17,46) mugatzen da oraindik ere, eta presentzia sinbolikoa baino ez du betearazpen-fasean (% 3,17), nahiz eta askatasunaz gabetzeko zigorren betearazpenaren eremuan lege-aipamen espezifiko bat dagoen bitartekaritza buruz, bai espetxeek kanpoko eremuari dagokionez –espetxe-zigorren etendura betearazleak, Zigor Kodearen 84.1 artikularen arabera—, bai zigorrak betetzeko esparruari dagokionez —90.2 artikulua, baldintzapeko askatasunaren eta gainerako zigorra betetzeko etenaldiaren barruan—, eta iii) deribazioa delitu arinetara mugatzen da (% 88,68).

- [Familia-bitartekaritzaren bilakaera aztertzea.](#) Familia-bitartekaritzako zerbitzuaren memoriak 2020. urteari buruz emandako datuek agerian uzten dituzte bi egoera, zeinen jatorria ebaluatu behar baita: i) deribazioak asimetrikoak dira lurralde historikoetan, eta ez datoz bat horietako bakoitzean dauden organo judizialen kopuruarekin. Zehazki, 151 Bizkaian, 91 Araban eta 70 Gipuzkoan; ii) deribazioen pisua oso desberdina da lurralde historiko bakoitzean. Araban, Gasteizko barruti judizialak baino ez du deribatzen, eta, horren barruan, askoz gehiago familia-epaitegi batek besteak baino, Betearazpeneko

Zerbitzu Erkidearen ekarpena garrantzitsua izanik; Bizkaian, Barakaldok eta Bilbok baino ez dute deribatzen, Balmaseda, Durango eta Getxoko deribazioa oso urria baita (151 kasuetatik 4 soilik), Barakaldok Bilbo baino gehiago deribatzen du, familia-epaitegi bakarra eduki arren (79 eta 68, hurrenez hurren), eta Bilbon, epaitegi batek besteek baino asko gehiago deribatzen du eta ez dago deribaziorik zerbitzu erkideetatik, eta, Gipuzkoan, deribazioa batez ere Donostiatik dator (70 kasutik 62), dauden bi epaitegietakoa batetik ia-ia dena, urria baita gainerako organo judizialen ekarpena (2 deribazio Azpeitian, bat Bergaran, 4 Irunen, 1 Tolosan eta bat ere ez Eibarren).

- [Ordena zibilean bitartekaritza handitzeko erabaki irmoa hartzea.](#) Alde horretatik, indarrean dagoen erregulaziotik abiatuta – izapidetzen ari diren lege-proiektuek ez baitute funtsean aldatuko–, egoki da judizio barruko bitartekaritza ezartzea, eta gero haztatzea gatazkak konpontzeko sistema alternatiboen ezarpena, eraginkortasun prozesalari buruzko lege-proiektuan prozedurarako baldintza gisa aurreikusten baita.



6.- JUSTIZIA ABEGITSUA ADINGABE ETA NERABEENTZAT

Ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralarenak, erronka nabarmenak dakartzkio sistema judizialari, jurisdikzioaren eta gobernu-kudeaketaren arloan. Gobernu-kudeaketaren esparrura mugatuta, oso garrantzitsua da lege horren aurreikuspen hauek edukiz betetzea:

- i) **Beharrezkoak diren protokoloak ezartzea** haurrentzako ingurune seguruak, tratu onekoak eta inklusiboak sortzeko (3 m, eta 12.4 artikulua), biktimizazio sekundariotik babestuta (4 e eta 12.3 artikulua);
- ii) Sistema publikoen arteko **lankidetzaren mekanismoak sortzea** jardunbide egokiak sortzeko (6. artikulua) eta lagun egiteko (12 h artikulua) sortzeko.

Aurreikuspen horiek garatuz, eta gogoan hartuta Arartekoaren 2/2021 Gomendio Orokorra, EAEn haur eta nerabeen kontrako abusu eta sexu-esplotazio kasuetan jarduteko jarraibideei buruzkoa, Gobernu Salaren Osoko Bilkurak, 2021eko maiatzaren 21eko bilkuran, jarraibide horiek jardunbide prozesal egokitzen onartu zituen, eta, BJLOren 161. artikuluan ezarritako bidetik, jarraibide horiek banatu zituen EAEn jurisdikzioa egikaritzen duten epaile eta magistratuen artean. Horraino iritsita, helburua da zeregin hori prestakuntza bereziko ekintzekin osatzea, prestakuntza deszentralizatuko planaren barruan, sistema judizialaren eta hezkuntza, osasun eta gizarte-zerbitzuen sistemen arteko lankidetzaren eta koordinazio-tresnak ezagutzeko, bereziki. Save the Children erakundeak babestutako Barnahus –Haurren etxea– proiektuarekin ere lankidetzan aritu beharko da. Proiektu horren helburua da espazio lagunkoi bat sortzea sexu-abusuen biktima diren

haurrei arreta emateko, batez ere. Proiektu horretan, hainbat profesionalen arreta integrala eta diziiplina anitzekoa emateaz gain, beharrezko diren baldintzak sortu nahi dira aldeztatik erabakitako proba egiteko prozesu penalean.



7.- JUSTIZIA: HEZKUNTZA- ETA UNIBERTSITATE-SEKTOREAREKIN KONEKTATUA

Hainbat helburu lortu nahi dira 2021-2022 urte judizialean.

Lehenengo eta behin, prestakuntza deszentralizatuko programa ezarri nahi da, Gobernu Salako Batzorde Iraunkorrak 2021eko uztailaren 9ko bilkuran onartua. Barruan, hiru ardatzetan oinarritzen da programazioa: i) hausnarketa egitea oraintsuko lege-erreforma batzuei buruz, oso sentiberak baitira irispidearen eta babes espezifikoren ikuspegitik —hala nola desgaitasunen bat duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza ematea, edo haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka erabat babestea—, edo funtsezkoak, hirugarren belaunaldiaren oinarritzko eskubideen ikuspegitik —hala nola datu pertsonalak babestea sistema judizialean—; ii) Covid-19aren pandemiaren kudeaketak ordena zibilean, administrazioarekiko auzienetan, sozialean eta merkataritzarenean duen eragina aztertzea; iii) zenbait gariri buruzkoak aztertzea, hala nola nazioarteko lankidetzaren judiziala, ikerketa kriminala, konkurtsoak, hirigintza eta Administrazioaren ondare-erantzukizuna, lan-harremanetako berdintasuna eta telelana. Proposamen hori berariazko prestakuntzekin osatuko da, hala nola José María Lidónen oroimenezko ikastaroa, eutanasia eta hiltzeko laguntza jorratuko baititu martxoaren 24ko 3/2021 Lege Organikoan jasotako araudiaren argitan,

eta Arartekoarekin diseinatu beharreko jardunaldia, haur eta nerabeen aurkako sexu-erasoei eta -abusuei buruzkoa.

Jarraipena ematea epaitegi eta auzitegi-tako kanpoko praktikei, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Justizia Ministerioak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak eta Euskal Herriko Unibertsitateak eta Deustukoak sinatutako hitzarmenen esparruan. Hartara, lankidetzan ariko dira etorkizuneko legelariak prestatzen, haietako asko izango dira-eta Justizia Administrazio-ko epaile, fiskal eta letradu etorkizunean.

Azkenik, “Justizian hezi” programa garatzen jarraitu behar da (2019an hasi ostean, eten egin zen COVID-19a zela eta). Programa hori Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Komunikazio Bulegotik sustatu dute, eta honako hauek ditu helburu, besteak beste: oinarritzko ezagutza justizia-sistemaren funtzionamenduari buruz —bai epaiketaren bidez, bai bitartekaritzaren bidez— eta profesionalek (epaileak, fiskalak, administrazioaren letraduak, prokuradoreak, gizarte-gradualak, auzitegi-medikuak) eta herritarrek (lekukoak, epaimahaikideak) dituzten rol prozesalei buruz, bai eta gizarte-ikuspegitik sentikorrak diren alderdien tratamendua ere, besteak beste genero-indarkeria, familia barruko indarkeria, hezkuntzaren alorreko jazarpena —zibernetikoari aipamen berezia eginda—, intimitatearen kontrako delituak (sare sozialekin lotuta),

sexu-delituak, kontsumo etilikoarekin edo sustantzia toxikoekin lotutako delituak. Horretarako, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak gaztelaniaz eta euskaraz egindako ikus-entzunezko dibulgazio-material bat oinarri hartu, eta honako hauek aurreikusi dira: epaile batek azalpena ematea ikastetxean bertan (lehen saioa), epaiketa batera joatea, bai eta guardiako epaitegira, identifikaziorako gelara eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundera ere (bigarren saioa) laguntza ere, eta, azkenik, epaiketa simulatu bat egitea, epaile batek gainbegiratua, ikasleek bertan parte hartuta, prozesu-rol desberdinetan (hirugarren saioa).

Programa hori erabat ezartzeko eta finkatzeko, oso garrantzitsua izango litzateke Justizia Auzitegi Nagusiaz eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaz gain, Hezkuntza Saila ere inplikatzeari, jarduera hori ikastetxeen curriculum-programen parte izan dadin lortzeko. Alde horretatik, aurtengo uztailaren 14an egindako Erakundearteko Batzordean, protokolo-proiektu bat aurkeztu zitzaion Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari, lankidetzara hori kudeatzeko.



8.- JUSTIZIA, ZERBITZU PUBLIKOA LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOAREKIN EMATEN DUENA

Aurten, prebentzio-jarduerak, funtsean, eraikin judizialetan COVID kutsatzearen aurkako babesera mugatzen dira, funtsean. Ildo horretan, kontuan hartu behar da badagoela arau- eta protokolo-esparru bat, arau hauek diseinatua: 3/2020 Legea, irailaren 18koa, Justizia Administrazioaren eremuan COVID-19ari aurre egiteko prozesu- eta antolamendu-neurriei buruzkoa; 2/2021 Legea, martxoaren 19koa, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurriena; 13/2021 Errege Lege Dekretua, 2021eko ekainaren 24koa; 2/2021 Legea, ekainaren 24koa, COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzkoa (Eusko

Legebiltzarrarena), eta Karrera Judizialean kutsatzeak prebenitzeko eta osasun profesionaleko neurriak hartzeko jardunbide egokien gida. Honako iruzkin hauek egin behar dira horri buruz:

1.- Alarma-egoera amaitzeak eta EAEko osasun-larrialdiaren deklarazioa bertan behera uzteak ez du baztertzen kutsatzeak geldiarazteko eta prebenitzeko koordinazio-neurriak hartzea edo mantentzea. Zehazki, neurri jakin batzuk indarrean egongo dira Gobernuak osasun-krisiaren amaiera ofizialki deklaratu arte.

2.- Indarrean dauden neurrien artean, martxoaren 29ko 2/2021 Legeak berariaz aipatzen du lantokietan neurriak hartzea, laneko osasunaren prebentzioari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak kontuan hartuta. Zehazki, pertsonen arteko 1,5 m-ko gutxieneko distantzia mantentzen da, eta lantokietan jendetzarik ez egoteko beharra dago. Agintaritza eskudunei esleitzen zaizkie, hala badagokio autonomia-erkidegoei, arau horiek zuzentzeko eta betetzen direla zaintzeko ahalmenak.

3.- Justizia Administrazioaren eremu espezifikoan, irailaren 18ko 3/2020 Legeak hartutako antolamendu- eta prozesu-neurriei eutsiko zaie, Gobernuak ofizialki deklaraturako osasun-krisiko egoera amaitu arte, egiten diren aldaketak eta eguneratzeak alde batera utzi gabe. Neurri

horien artean, justizia-jauregietatik pertsonen joan-etorria murrizteko irizpideak mantentzen dira, lehentasuna emanez jarduera telematikoei eta aurrez aurrekoen bestelako komunikazio-modu batzuei.

4.- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, alarma-egoera amaitu ondoren, eguneratu egin du Karrera Judizialean kutsatzeak prebenitzeko eta osasun profesionaleko neurriak hartzeko jardunbide egokien gida. Banakako babes-neurrien artean, Karrera Judizialeko kideak eraikin judizialekara sartu eta bertan egon ahal izateko bermea dago, harreman-ardatz guztietan (albokoa, aurrekoa eta atzekoa) elkarerraginean gutxienez 1,5 metroko segurtasun-tartea mantenduta. Gobernu-kudeaketaren eremu espezifikoan, aurreikuspenen arabera, zerbitzuen administrazioekin koordinatuta, egoitza judizialen ezaugarri espezifikoak kontuan hartuta, eraikinen kanpoaldean pilaketak saihesteko neurriak hartuko dira, eta irizpide orokorrak hartuko dira judizio-aretoetako gehieneko edukierari dagokionez, pertsonen arteko segurtasun-distantzia gutxienez 1,5 metrokoa izan dadin eta bertaratutako pertsona kopuru handia izan ez dadin. Horri dagokionez, segurtasun-distantzia seinaleztatu behar da, eta dagokion justifikazioarekin soilik sar daiteke.

Arau- eta protokolo-premisa horietatik abiatuta, Gobernu Salaren Osoko Bilkurak, 2021eko urriaren 29ko saioan, honako hau erabaki zuen:

1.- Beharrezkoa da eraikin judizialak bereiztea edukiera globalak arautzen dituzten gainerako espazio, lokal edo instalazioetatik. Eraikin judizialak, alde batetik, lantokiak dira, eta, bestetik, herritarrak sartzeko espazioak. Horregatik, edukiera arautzean bat egiten dute egoitza judizialetan lan egiten duten kolektiboen laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak, bai eta osasuna zaindu nahi duen araudi orokorrak eta espezifikoak ere, eraikin judizialetara sartzen diren herritarrentzako kutsatzeak saiheste aldera.


2.- Zehazki, eraikin judizialetan, haietarako sarbidea mugatzen duten arauak mantentzen dira, jende-pilaketak saihesteko, bai eta espazio bakoitzaren barruko edukierari buruzkoak ere, pertsona arteko segurtasun-distantzia, 1,5 metro, bete ahal izateko, edozein ardatzetan.

3.- Hori dela eta, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak egindako Jarduketa Gidaren babespean, prestazio-administrazioaren lankidetzak eskatzen dugu judizio-aretoen eta erabilera anitzeko aretoen edukiera finkatzeko, bertaratutakoen ardatz guztietan pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia bermatze aldera. Horrela, jarduera judizialak garatzea ahalbidetzen da, COVID-19aren ondorioz osasunerako arriskuak prebenitzeko bermeak errespetatuz.

Modu osagarrian, eta COVID-19aren kutsatzeak prebenitzeko eta osasun profesionaleko neurriak hartzeko jardunbide egokien gida ahalik eta gehien garatze aldera, honako helburu hauek ere landuko ditugu:

* CO2 detektagailuak instalatzea aireztapen naturalik ez duten bulego judizial guztietako gehieneko okupazio-eremuetan, judizio-aretoetan eta erabilera anitzeko geletan. Ekipamendu horiek sentsorearen autokalibrazioa eta LCD display bidezko bistaratzea dituzte; beraz, instalatu ondoren, eraikin judizialaren erabiltzaileek une oro egiaztatu ahal izango dute airearen kalitatea. Gailu horiek okupaziorik handienekotzat jotako bulego judizial batzuetan instalatu dira dagoeneko. Nolanahi ere, komenigarritzat jotzen da instalazio hori judizio-areto eta erabilera anitzeko areto guztietara zabaltzea.

* Babes-manparak judizio-geletan eta erabilera anitzeko geletan, segurtasun-distantzia bermatu ezin denean (1,5 metro). Komeni da babes-manparak jartzea judizio-aretoetan eta erabilera anitzeko geletan, segurtasun-distantzia bermatu ezin denean (1,5 metro); izan ere, aerosolak sortzeko arrisku handia dago hainbat pertsona egotea eskatzen duten eta denboran luzatzen diren egintzetan.



9- JUSTIZIA, GIZARTE ELEBIDUNEAN

Ordenamendu juridikoak herritarren hizkuntza-eskubideak aitortu ditu, eta eskubide horiek betetzen direla bermatu beharra ezarri dio Administrazioari: Espainiako Konstituzioaren 3.2 artikulua, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231.3 artikulua, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 6. artikulua, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarritzko Legea eta 1992ko urriaren 2ko Eskualde edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Gutunaren 9. artikulua (Espainiaren berrespen-tresna 2001eko irailaren 15ean argitaratu zen BOEn). Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioan Hizkuntza Normalizatzeko 2011-2020 aldirako Plan Orokorren helburu eta ildo estrategikoetan zehaztu zen bezala

(ekainaren 29ko 174/2010 Dekretuan jasotzen dira, 2010eko uztailaren 12ko EHAA), Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren arteko adostasunez egin behar da 2021-2025 urteetarako planaren helburuak eta estrategiak diseinatzeko lana. Eta hori guztia, hizkuntza-koofizialtasunaren araubidea gauzatzeko ahaleginak bideratzeko, eta, ondorioz, herritarrei zerbitzu hobea emateko, kontuan hartuta, bereziki, Autonomia Estatutua, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarritzko Legea eta haren interpretazio konstituzionala; Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, Espainiak 2001ean berretsia; eta Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Orokorra (2018-2022 aldirako indarrean dagoena).

Argia da Justizia Administrazioaren eremuan elebitasuna oinarri duen hizkuntza-normalizazioko prozesuaren garapena, hauek baliatuta: euskara juridikoa finkatzea, prozesuko ia inprimaki guztiak euskaratzea, Justizia Administrazio honetako langileei hizkuntza-eskakizunak zehaztea, Autonomia Erkidegoaren mendeko funtzionarioek eta Justizia Administrazioko epaile eta fiskalek eta letraduek hizkuntza-ikasteko erraztasunak, eta akordio sindikalak.

Hala ere, egiaztatu da Justizia Administrazioan gutxi erabiltzen dutela euskara hala herritarrek nola organo judizialek. Horregatik, Gobernu

Salak konpromisoa hartzen du, euskararen erabilera eraginkorrako bideratzeko Justizia Administrazioan honako jarduera hauek sustatuta:

1.- Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari eskatzea:

a) Justizia Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko 2021-2025 aldirako plana komunikatzea.

b) hala badagokio, euskararen erabilera normalizatzeko 2015-2020 aldirako Planaren ebaluazio-txostena helaraztea.

c) Autonomia Erkidegoko justizia-jauregi guztietako leku estrategikoetan jartzea herritarren hizkuntza-eskubideak azaltzen dituzten kartelak.

2.- Gai hori Erakundearteko Batzorde Mistoaren aldizkako bileretan sartzeari, egoeraren jarraipen bateratua egiteko.

3.- Konpromisoa: Autonomia Erkidego honen eremuan, Justizia Auzitegi Nagusiaren Lehendakariaren, Gobernu Salaren eta Gobernu Idazkaritzaren komunikazioak gaztelaniaz eta euskaraz egin daitezen

sustatzea, prestazio-administrazioak eskura jarritako giza baliabideen eta baliabide materialen arabera.


4.- Konpromisoa: Justizia Auzitegi Nagusiak antolatzen, babesten, laguntzen edo parte hartzen duen autonomia-erkidego honetako ekitaldi eta ekimenak gaztelaniaz eta euskaraz argitaratzea.

5.- Konpromisoa: Justizia Auzitegi Nagusiak antolatutako ekitaldiak pixkanaka gaztelaniaz eta euskaraz egitea.

6.- Konpromisoa: Autonomia Erkidegoko justizia-jauregi guztietako komunikazio publikoak, iragarkiak, abisuak, oharra eta kartelak, gaztelaniaz eta euskaraz ager daitezen sustatzea, prestazio-administrazioaren esku jarritako baliabide material eta pertsonalekin bat etorritik.

7.- Euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara itzultzaile neuronal judizialaren planari laguntzea, espediente judizial digitalean integratutako tresna gisa, Justizia Administrazioaren langileen eta Justizia Administrazioarekin lankidetzan diharduten erakundearen eskura dagoena.

8.- Erabaki eta konpromiso horiek guztiak organo judizial guztietara zabaltzea.



10.- JUSTIZIA, BERDINTASUNAREN ALDE

Berdintasuneko ordezkariarekin koordinatutako jarduera baten bidez, Karrera Judizialeko II. Berdintasun Plana EAEn aplikatzea sustatzeko, Gobernu Salak honako hauek egin ditzake:

- II. Berdintasun Plana hedatzeko zereginean laguntzea.
- Bizitza pertsonala, familiakoa eta profesionala uztartzeko hartzen diren neurriak berariaz argitaratzea.
- Familia zaintzearekin zerikusia duten baimenak emateko irizpideak bateratzea. Horretarako, egokia da, ahal denean, aldez aurreko txostena eskatzea berdintasuneko ordezkariari.
- Prestakuntza deszentralizatuko planean sartzea berdintasunaren arloko zeharkako prestakuntza-jarduerak, genero-estereotipoak gainditzeko irizpideak eta genero-ikuspegia.
- Jurisdikzio-funtzioaren egikaritzea haurdunaldiko edo edoskitze naturaleko behar espezifikoetara egokitzea, bere eskumenen arabera. Horretarako, egokia da, ahal denean, aldez aurreko txostena eskatzea berdintasuneko ordezkariari.

- Ordezko magistratuen eta ordezko epaileen ebaluazio-batzordeen osaeran parekotasuna bermatzea, bai eta gobernu-salaren ekitaldi publikoetan ere.
- Berdintasuneko ordezkariek egiten dituen sentsibilizazio-kanpainekin lankidetzan aritzea, gobernu-karguetan emakumeen presentzia orekatua ahalbidetzeko.
- Berdintasuneko ordezkariei dekanotzetarako eta gobernu-saletarako hauteskundeetarako deialdiaren berri ematea, kargu horietara emakumezkoak aurkez daitezzen sustatzeko.

